

# Urdaibain etxebizitzak eraikitzeke egin zuten arau aldaketa atzera bota dute

Jaurlaritzak biosfera erreserbako Plan Gidarian eragiteko eskumenik ez daukala esan du EAeko Auzitegi Nagusiak bere ebazpenean

ASIER ITURRIAGA ETXEBARRIA - BILBO

Urdaibaiko (Bizkaia) Kanala inguruan etxebizitzak egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzak egin-dako arau aldaketa bertan behera utzi du Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) Auzitegi Nagusiak. Ebazpenak dioenez, Jaurlaritzako Ingurumen Sailak argitaratu zuen dekretua —Urdaibaiko biosfera erreserbako Plan Gidaria aldatuko luke— «inkongruentea» eta «inkoherentea» da. Alde batetik, Urdaibaiko Plan Gidarian eragiteko eskumenik ez daukala esan dio EAeko Auzitegi Nagusiak Jaurlaritzari, hori Eusko Legebiltzarrari bakarrik dagokiolako. Bestetik, Kanala inguruan etxebizitzak egin gogorarik ez dagoela gogorarazi dio.

Urdaibaiko Plan Gidarian eragingo lukeen dekretua kaleratu zuen Jaurlaritzako Ingurumen Sailak 2003. urteko ekainean. Horren arabera, parke naturaleko 278.000 metro koadrotan —146.000 metro koadro kostaldea eta artadia dira eta beste 132.000 metro koadro nekazaritza lursailak— etxebizitzak eraikitzeke aukera izango litzateke Kanalan. Ekologistak Martxanek epaitegira jo zuen. Salaketan esan zuenez, dekretua «legez kanpoko», arrazoi gabea eta errealtatearekin bat ez datorrena» zen. Arau aldaketaren bitartez eraikiko liratekeen etxebizitzekin dirua egiteko asmoa baino ez zegoela adierazi zuen.

EAeko Auzitegi Nagusiak bat egin du bere ebazpenean Ekologistak Martxanek salaketan agertutako tesiarekin. Jaurlaritzak dagozkionak baino eskumen gehiago hartzeaz gainera, Kanalan etxebizitza gehiago egin beharrik ez dagoela azpimarratu du. Kanala bi udalerritan banatuta dago: Gautegiz-Arteaga eta Sukarrieta. Lehenengoan, 200 etxebizitza berri egiteko aukera dago horretarako erabilgai dauden lursailetan.

Gainera, etxebizitzak %47 hutsik daude. Sukarrietan antzeko egoeran daude: 150 etxebizitza berri egin daitezke eta udalerritako etxeen %67 hutsik daude.

Ekologistak Martxaneko kideek xanpaina edanez ospatu zuten atzo EAeko Auzitegi Nagusiak eginiko ebazpena. Urdaibaiko Plan Gidaria aldatuta, babes ofizialeko etxebizitzak eta herriarrentzat hainbat zerbitzu —ur hodiak egin eta estolderia konpondu— egiteko asmoa zuela

adierazi zuen Jaurlaritzak. Joserra Ortiz Ekologistak Martxaneko kideak esan zuenez, hori ez zen benetako asmoa. «Zenbait udalengan benetako egitasmoaren planoak zeuden, eta lortu genituen. Luxuzko etxebizitzak egitea zen Kanalarako zuten asmoa».

## Ingurumen Saila ez dator bat

EAeko Auzitegi Nagusiaren ebazpena ondo aztertu gabe izan arren, Urdaibaiko biosfera erreserba «beste inork» baino hobeto zaindu dutela azpimarratu zion atzo BERRIARI Jaurlaritzako Ingurumen Sailak. Hala ere, Bizkaiko Diputazioarekin Kanalan soilik 24 etxebizitza egiteko hitzarmena sinatu zuela gogorarazi zuen, «eta beti Urdaibaiko Patronatuaren oniritziarekin». «Kanalan egun dagoen kasa baino nahiago dugu ingurua ondo antolatuta egotea. 24 etxebizitzak egin dezaketen kalte oso txikia da».



URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBA babes berezia behar duen lekua da. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

## Oianguko aisialdi parkearen aurka 2.700 sinadura bildu dituzte

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Ordiziako Udalak (Gipuzkoa) urte hasieran oniritzia eman zion Oiangu Aisialdi Gunea proiektuari. Herritar askok ez dute gogoko egitasmoa, ordea, eta Oiangu Bizirik eta Publiko taldean batu dira. Aditza eman dutenez, proiektuaren kontrako 2.600 sinadura lortu dituzte dagoeneko.

«Proiektua geratzeko eskatu diogu alkateari», eman dute aditza prentsa ohar batean. Oiangu Aisialdi Gunea egiten bada Oiangu inguruak «espazio publiko eta naturala» izateari lagako liokeela pentsatzen dute, eta horren kontra egin nahi dutela diote. Horretarako, helegitea jarri dute Ordiziako Udalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko Iñigo Lamarcarekin harremanetan jarri dira, eta sinadura bila dabilta. Beste hainbat egitasmo bultzatzearekin batera.

Beren jardunarekin Udalak afera honetan izan duen «gardentasun falta» kritikatu nahi dute, eta egitasmo berriak «garapen iraunkorren» oinarriak apurtzen dituela ere bai. Egundako Oiangu inguruetaiko «utzikeria» egoera nabarmena dela diote, baina beren ustez konponbidea ez du ekarriko Oianguko Aisialdi Guneak.

## Golf zelaia, igerilekua, hotela, eta beste

Aisialdi guneko egitasmoan, besteak beste, golf zelaia, igerileku bat, eta hotela irekitzea proposatzen da. Beste gauza askoren artean. Esaterako, paint-ball jolasean aritzeko lekua ere eskaini nahi du parkeak. Gogor kritikatu dute hori aurkakoek. «Indarkeriaren kulturarekin lotutako balioak sustatzen ditu horrek», eman dute aditza.

«Gutxi eman eta asko kenduko duen egitasmoa da», azaldu dute Oiangu Bizirik taldeko kideek prentsa oharrean. Haserre. Eta ez dute beren jardunean eteteko asmorik.

Asteburu honetan sinadurak biltzen ariko dira Ordizian, Erdi Aroko azokan. Ekainaren 1erako hitzaldi bat antolatu dute Barrena kultur etxean, eta ekainaren 4an, berriz, Oiangu Eguna ospatuko dute.

## JAURLARITZAKO LEHENDAKARI OHIAREN ETXEA

### «Jose Antonio Ardanzak Kanalan egindako etxea bota egin beharko lukete»

EAeko Auzitegi Nagusiak egindako ebazpena aintzat hartuta, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohi eta Euskaltel enpresako presidentek Kanalan eginda daukan etxea bota egin beharko litzatekeela agertu zuen Joserra Ortiz Ekologistak Martxaneko kideak. «Ez dakit zer gertatuko den, baina hiru txerrixoen ipuinean jazo bezala, noizbait bota egin beharko dute

Ardanzaren etxea». Izan ere, lehendakari ohiak egindako eraikina dagoen lursailan ezin dela etxebizitzarik eraiki agertu du EAeko Auzitegi Nagusiak bere ebazpenean.

Ardanzak Gautegiz-Arteaga udalerriko eremuan egin zuen bere etxebizitza, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Urdaibaiko Plan Gidaria aldatuko lukeen dekretua argitaratu aurretik. Zenbait talde ekologistak salatu

gutenez, gainera, udal arau bat bera ere ez du betetzen eraikinak. «Jokaldi zoragarria egin nahi izan zuten. Arau aldaketa eginda, Ardanzaren etxea legezkoa bihurtzeko».

Lehendakari ohiak Kanalan etxea egin zuela jakitean, zalaparta handia piztu zen Euskal Herriko gizarteko zenbait esparrutan. Legez babestuta dagoen lursailan egin zuten, eta Ardanza euskal gizarteko pertsona

esanguratsua izanda, eragile ekologista askoren ahotan izandako gaia izan da.

Ortiz aburuz, EAeko Auzitegi Nagusiak egindako ebazpenak beste ondorioren bat ere ekarri beharko luke, «baina horrek ez du esan gura horrela gertatu behar denik». Esaterako, Ortizek esan zuenez, Ardanzari etxea egiteko baimena eman zionean Gautegiz-Arteagako Udalak prebarrikazio delitua egin zuten aztertu beharko da. «Baliteke Udalak arauak ez ezagutzeagatik ematea baimena, edo ez. Hori aztertu behar da orain».